

BALIOZKO PROPOSAMENA

Ingurumen-ingeniaritza eta ur-kudeaketan hainbat enpresa eta proiektu daude. Lehia handia dago azpiegitura konbentzionalen merkatuan, eta ohiko proiektuak maiz ingurumen-inpaktu handia dute, kostu altuak eta ez diote ekonomia zirkularrari laguntzen.

Zer eskaini dezake EkoPresa markak horrelako merkatu lehiakor eta tradizional batean? Ekonomia zirkularra eta ingurumen-berreskurapena. Presa ekologikoak, material birziklatuekin eraikiak, tokiko beharrak asetzeko eta ingurumena berreskuratzeko aukera, beti proiektu jasangarri eta inklusibo gisa.

Zer da EkoPresa? Nola egingo dugu? Pneumatiko zahar birziklatuekin presa ekologikoak eraikitzeke proiektua da. Gure proiektua bertako materialarekin eta eskulanaren bidez, proiektu modular eta eskalagarrietan oinarritzen da. Material birziklatua, ekoizpen lokal mugatua, jasangarria eta iraunkorra.

Aipatu bezala, azpiegitura hidraulikoen merkatuak baditu hainbat ezaugarri bere jasangarritasuna zalantzan jartzen dutenak:

- Ekoizpen prozesua: Orokorrean presa konbentzionalek material energetiko intentsiboak erabiltzen dituzte (hormigoia, altzairua), ekoizpen prozesu kutsakorrek eta garraio luzekoak. Helburua azpiegiturak azkar eta masiboki eraikitzea denez, ingurumen-inpaktua eta materialen jasangarritasuna ez dira aintzat hartzen.
- Materialak: Kostuak murrizteko helburuarekin, enpresak material naturalak alde batera utzi eta industrializatuagoak erabiltzen dituzte. Material hauek merkeagoak dira, baina ez dira birziklagarriak, eta epe luzera mantentzeko zailagoak dira.
- Ekoizpen kantitate handiak: Azpiegitura handiek material eta energia kantitate handiak kontsumitzen dituzte. Horrek baliabide naturalen gaineko presioa areagotzen du, eta proiektuaren bizitza utilaren amaieran, hondakin ugari sortzen dira.
- Iraungitasuna: Ohiko presen bizi-utila mugatua da, eta maiz konponketa handiak behar izaten dituzte. Materialen higadura azkar gertatzen da, eta proiektuak ezin dira egokitu aldaketa klimatikoetara.

- Tokiko parte hartze eskasa: Proiektu handiek maiz ez dute tokiko komunitatearen parte-hartzerik, eta horrek gizarte-onarpen falta eta proiektuaren iraunkortasun sozial galera ekar dezake.

Egoera hau aldatu beharra dago. Horregatik, EkoPresa enpresak presa ekologikoak eraikiko ditu. Mundu honetan sartuko gara barrutik aldatzen saiatzeko.

Zertan datza EkoPresa enpresaren presa zirkularren eredua?

Guk eskaintzen duguna horrela laburtu daiteke:

Kontsumo eredu arduratsua: Gure proiektuak material birziklatuan oinarritzen dira. Pneumatiko zaharrak erabiliko ditugu egitura nagusi gisa. Aurreikusitako proiektu bakoitzean, proiektuak diseinatuko ditugu komunitatearen parte-hartzearekin. Honek proiektuaren jasagarritasun sozialean lagunduko du.

Ekoiztutako kantitatea: proiektu bakoitza komunitatearen beharren arabera diseinatuko da. Ez dugu proiekturik inposatuko, baizik eta eta beharrei erantzungo diegu. Honek proiektu egokiagoak eta komunitatearen beharrak hobeto asetzen dituenak izatea ahalbidetzen du.

Iraunkortasuna: Gure proiektuak material birziklatuak erabiliko dituzte, eta proiektuaren bizitza-amaieran, materialak berriz birziklatu daitezke. Diseinu modular eta egokigarriak izango ditugu.

Material naturalak eta birziklatutakoak: Material naturalak (lurra, legarra) eta birziklatutakoak (pneumatikoak) erabiliko ditugu. Ahalik eta jatorri gertuenekoak, garraioaren inpaktua murrizteko.

Ekoizpen prozesua: proiektuak tokian tokiko lan-indarraz egingo dira, ahal bada, komunitatearen parte-hartzearekin. Prozesuari erabateko trazabilitatea emango diogu. Materialen jatorria, prozesamendua, eraikuntza eta banaketa non eta nola egin diren jakingo du publikoak. Naturan izandako inpaktuaren berri ere emango dugu.

Prezioa: Gure proiektuak ohiko presen kostuen %70-80 murriztuko dute. Hori ez da gure lehia nagusia, baina gure proiektuek balio erantsi handia dute: ingurumen-inpaktu positiboa, gizarte-partaidetza eta ekonomia zirkularra.

Beraz, esan bezala, azpiegitura hidrauliko jasangarriak eta inklusiboak eskainiko ditugu, presak modu zirkularrean eraikitzeko, material birziklatuan oinarrituta. Ingurumena eta komunitatea jarriko ditugu aurretik.